

## **Hiri garbia, Donostia erakargarria.**

### Hiri-garbiketa eta hondakinen gaikako bilketa

Donostia eredu zen kaleen garbitasunari dagokionez. 2011N egindako inkesta batean, OCU erakundeak, arlo honetan notarik onena zutenean artean kokatzen zuen estatu mailan. Azken urteetan, ordea, herritarren pertzepzioa nabarmen aldatu da. Hala egiaztatzen du 2013ko iradokizun eta kexen Udal txostenak, eta baita Ideiagunean jaso izan diren ekarpenek ere.

Begibistakoa da Donostiak okerrera egin duela garbitasunari dagokionean, eta begibistakoa da ere, gurea bezalako hiri bat garbi edukitzeko, udal-zerbitzuen eta herritarren arteko ahalegina eta elkarlana ezinbestekoa dela, espazio publikoaren erabilera intentsitate handikoa baita.

**5 lan-ildo nagusi** aurkezten ditugu, garbiketa eta hiru-hondakinen politikan lehentasunak finkatzeko:

#### **1.- Hiri-garbiketa hobetu.**

- **“Gaur zure auzoaren txanda da”** izeneko egitasmoa martxan jarri. Egun bateko ezohiko garbiketa ekintzak programatu, auzoz-auzo, garbiketa jarduera guztiak aintzat hartuta: espaloiak, pintadak, kartelak...
- **Ekitaldi berezietan zikinkeria murrizteko ekintzak.** Festa, ospakizun eta jarduera berezien garbiketa lanen aurreikuspenetan, ezohiko baliabideak ez ezik, kontuan hartu atal bat, zikinkeria murrizteko ekintzekin: organikoa, beira eta ontziak jasotzeko edukiontziak, eta bestelakoak.

**2. Auzolanean Donostia garbi.** Hiri garbi eta erakargarria lortzeko, herritarren elkarlana sustatuko duten ekimenak martxan jarri, hala nola:

- “DonostiaOn” izeneko abisuen kudeaketarako sistema ezarri. Honen bitartez, herritarrak garbiketa zerbitzua hobetu ahal izango dute sakeleko telefonoen edo bestelako komunikazio sistemekin, garbiketari lotutako abisu eta oharrak helaraziz. Abisu horiek espedientea irekitzeko eta aktuzioak martxan jartzeko balio beharko dute. Garbiketa zerbitzuaren kontrol eta kalitate sistema informatikoen artean txertatu beharko da tresna berri hau.
- Hiriaren garbiketari lotutako Udal ordenantzak bete eta betearazi: gizabidezko ordenantza, hiri-hondakin solidoena, hondartzetakoa...
- Gizabidezko elkarlana sustatu hitzarmen espezifikoaren bitartez, ostalariekin, merkatariekin edota hezkuntza zentroekin hiria garbi mantentzen laguntzeko konpromisoak finkatuz.
- Gizabidezko sustatzaileen figura sortu. Jarrera gizalegezkoagoak sustatzea izango da beraien egitekoa. Hiriaren garbiketa eta mantenimendurako arauak betearazten lagunduko dute ere, informazioa eskainiz eta eta gizalegezkoak ez diren jarrerak zuzenduz.
- Biztanlegoaren segmentu espezifikoari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak abian jarri. Ikastetxe eta ikastolekin elkarlan hitzarmenak sinatu, eskola arloa bereziki landuz.

### **3.- Espazio txukunak.**

- Gizabidezko ordenantzaren barruan, erabiltzen ez diren lokalen jabeak lokalaren aurrealdea garbi mantentzeko duten betebeharra aintzat hartu.

### **4.- Altzari eta tamaina handiko objektuen bilketa, alde aurreko hitzorduarekin.**

- Altzari eta etxetresnak kalean utzi eta jasotzeko gaur egun dagoen sistema aldatu. Horiek alde aurretik hitzordua eskatuz biltzea ahalbidetu, ez daitezen bide publikoan utzi.

## **5.- Edukiontzi moderno, eroso eta garbiak.**

- Zaborrak biltzeko gaur egungo edukiontzi sistemari eutsi. Atez-ateko bilketa ez da ezarriko.
- Pixkanaka, egungo edukiontzien ordeztu, pertsona guztiei egokitutakoak ezarri.
- Edukiontzien paisaia inpaktua murrizteko, itxiturak eta beste neurri bereziak diseinatu.
- Hondar frakzioa jasotzeko edukiontzian, txipa ezarri esperientzia pilotu batean, beste edukiontzien erabilera sustatzeko.
- San Marko Udal Elkartearen bitartez, bi garbigune berri zabaldu, bat hiriko mendebaldean, eta bestea Amara inguruan.
- Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoarekin akordio zabala sinatu hondakinen kudeaketarako ereduaren inguruan, etorkizuneko konponbide jasagarriak bultzatuz -sortzen diren hondakin kopuruei egokitutakoak-, eta zabortege berriak baztertuz.